VITORIA GASTEIZ
green capital

KIDEZ KIDE

PENTSATU PLURALEAN! GAZTEAK, LANKIDETZA ETA BIZIKIDETZARAKO BIDEAN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

ZER DA "KIDEZ KIDE"?

Vitoria-Gasteizko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak eta Gazteria Zerbitzuak bultzatutako programa da, eta Vitoria-Gasteizko eta beste herrialde batzuetako gazteen arteko elkarrekintza, bizikidetza, lankidetza eta solidaritatea sustatzen ditu.

Programa **Vitoria-Gasteizko Udalaren Hiri Hezitzailearen** hezkuntza-eskaintzaren barnean dago.

NORI ZUZENDUTA DAGO ?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa, Batxilergoa edo Lanbide Heziketa egiten ari diren edo aisialdiko taldeetan parte hartzen duten 14 eta 18 urte bitarteko gazteei.

ZEIN HELBURU DITU ?

- Vitoria-Gasteizko eta beste herrialde batzuetako gazteek harremanak izateko, elkar ezagutzeko eta taldean lan egiteko espazioak eskaintzea.
- Gazteak migrazioen fenomenoaren inguruan sentsibilizatzea, eta gure inguruan migratzaileekiko bizikidetza- zein solidaritate-jarrerak sustatzea.

ZERTAN DATZA ?

KIDEZ KIDE programak Vitoria-Gasteizko gazteei aukera eskaintzen die beste herrialde batzuetako gazteekin elkarreragina izateko, kolektibo gisa eragiten dien zenbait gai lantzeko asmoarekin: interes komunak, kezka edo arazo partekatuak, bizi-estiloak, zaletasunak, esperientziak, dauden interrelazioak, etab.

Eskuratutako ezagutzetatik, errealitate propiotik eta baliatzen dituzten sormen dosietatik abiatuta, gazteak ikasturtean zehar egiten duten talde-lanean oinarritutako ikaskuntza propioaren protagonista bilakatzen dira proposamen artistiko, hezitzaile eta kulturalak gauzatzearen bitartez.

ZEIN METODOLOGIA JARRAITZEN DU ?

Eragile hezitzaile eta sozialen babesarekin, KIDEZ KIDE programak izaera kooperatibo eta parte-hartzailea duen metodologia erabiltzen du, eta gazteen esperientzia propiotik eta talde-lanetik eratorritako ikaskuntza du oinarri; teknologia berriak barne hartzen dituen elkarrekintza- eta elkarreragin-prozesu baten bitartez.

INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR DUZU ?

Informazio gehiado hemen:
www.v-g.eus/kidezkide

KIDEZ KIDE PROGRAMAREN HURRENGO EDIZIOETAN PARTE HARTZEA GUSTATUKO LITZAIZUKE ?

Izen-ematea irailean egiten da, ikasturte-hasierarekin batera, Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea proiektuaren plataformaren bitartez:
www.v-g.eus/inskripzioa-kidezkide

Hurrengo ikasturtean parte hartu nahi baduzu, idatzi posta elektronikora eta informazio gehiago emango dizugu: **yiraeta@vitoria-gasteiz.org**